

Koiuntura di-da batean

2019ko azaroa

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Enplegua
3. Langabezia
4. Inflazioa
5. Inguruneko hazkundera
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,0 hazi zen hirugarren hiruhilekoan.

Lanpostuen kopurua %1,6 areagotu zen urte arteko tasan.

2. Landunen kopurua %1,4 handitu zen udako hilekoetan.

Lehen bederatzita hilekoetako batez bestekoa 2018. urtekoa baino txikiagoa da.

3. Langabezia tasa %9,2ra jaitsi zen.

2010etik aurrera inoiz jaso den tasarik txikiena da.

4. Prezioek moteltzeko joerari eutsi zioten irailean.

Argindarraren merkatzea dago bilakaera horren atzetan.

5. Hazkunde desberdinak urteko hirugarren hiruhilekoan.

Oro har, intentsitate galera nabari da eremu ekonomiko nagusietan.

6. Munduko ekonomia apaltzen ari da.

NDFk beherantz zuzendu du munduko ekonomiaren hazkundera 2019an eta 2020an.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %2,0 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasa




Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %2,0 hazi zen 2019ko hirugarren hiruhilekoan. Kopuru hori aurreko bi aldietan erregistratutakoa baino bi hamarren txikiagoa da, eta pentsatzekoa da 2018ko lehen erditik aurrera izan duen dezelerazio bideari ekin diola berriz ere. Hala eta guztiz ere, hazkunde erritmo esanguratsua izaten jarraitzen du, bereziki kontuan hartzen badugu Europako ekonomia handietako batzuk atzeraldian daudela edo ia hutsala den hazkundea dutela. Hiruhileko arteko aldakuntzari dagokionez, igoera% 0,4koa izan zen; kasu horretan ere, aurreko bi hiruhilekoetan lortutakoa baino bi hamarren txikiagoa.

Barne produktu gordina
Hiruhileko arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Lanaldi osoko lanpostuak
Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek argitaratutako datuak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenaren azpitik daude; izan ere, urte arteko BPGaren aldakuntza tasa% 2,2koa eta hiruhileko arteko% 0,5ekoa izango zela aurreikus-
ten zuen. Aitzitik, kontu ekonomikoek egiten duten enpleguaren estimazioa Ekonomia Zuzendaritzaren au-
rreikuspena baino mesedegarriagoa da. Zehazki, lanaldi osoko lanpostuen kopurua% 1,6 igo zen urte arteko
tasan, aurreikusitako% 1,4aren aldean. Beraz, azken urtean 15.500 enplegu inguru sortu dira eta ekonomia-
ren zifra osoa 982.000 enplegu ingurukoa da, 2008ko amaieratik izandako handiena. BPGaren eta enplegua-
ren konbinazioak iradokitzen du hiruhilekoko produktibitate irabazia lau hamarren ingurukoa izan zela, balio
oso apala, industriaren une txarrak justifikatzen duena.

Lanaldi osoko lanpostuak
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

LAN MERKATUA


Landunen kopurua %1,4 handitu zen udako hilekoetan

Enplegu guztiaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa




Eustatek argitaratzen duen BJA inkestak adierazten du enplegua %1,4 hazi zela aurtengo hirugarren hiruhilekoan eta lehen bederatzi hilekoen batez bestekoa %1,3 dela. Beraz, landunen bilakaerak nolabaiteko egonkortasuna erakusten du enplegua sortzeko erritmoan, une batzuetan gorabeherak egon arren. Halere, ez da iritsi 2018an lortu zen batez bestekora (%1,8). Inkesta horren arabera, lana duten pertsonen kopurua 955.100 lagunetara iritsi zen eta 2008ko amaieratik jaso den altuena da. Emakumeei dagokienez, zenbatetsi den kopurua 452.600 landunena da, eragiketa estatistiko hau egiten denetik (1985) inoiz jaso den baliorik gorena baita. Urte arteko aldakuntza tasa %2,1 izan zen. Beste aldetik, hiruhilekoan 502.500 gizon zeuden lanean, urte arteko gehikuntza tasa %0,9 izan zelarik.

Enplegua . Gizonak
Urte arteko aldakuntza tasak




Enplegua . Emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat.


Enplegua industriari Urte arteko aldakuntza tasa




Enpleguaren bilakaera oso ezberdina da sektorearen arabera. Izan ere, estatistika horren arabera, industria landunak galtzeko aldi batean dago murgilduta. Zehazkiago, aurtengo hirugarren hiruhilekoan, jaitsiera %2,4ra iritsi zen, aurreko hiruhilekoaren oso antzekoa dena. Horren ondorioz, dagoeneko hiru hiruhilekoz jarraian urte arteko tasa negatiboak jaso ditu. Sektorean 202.900 lagunek lan egiten dute orain.

Eraikuntzaren profila industriarena ez bezalakoa da, urte batetik bestera %6,0ko hazkundera izan baitu, azken urteetako handiena. Gainera, enplegua etengabe handitzea lortzen du azken zortzi aldietan. Uneotan, 51.000 pertsona baino gehiago ari dira sektorean lanean.

Enplegua eraikuntzan Urte arteko aldakuntza tasa



Enplegua zerbitzuetan Urte arteko aldakuntza tasa




Azkenik, zerbitzuek %2,5eko aldakuntza erregistratu zuten, urte arteko tasan. Datuak bigarren hiruhilekoaren balioa hobetzen du, baina aurreko hiru emaitzen antzekoa da, guztiak %2,0tik gorakoak izan baitziren. Guztira, 690.900 lagun daude sektorean lanean. Kasu honetan ere, serie historiko osoko kopururik handiena da. Emakumeen parte-hartze zabala duen sektorea da. Izan ere, bertan lan egiten duten pertsona guztietatik 400.400 emakumeak dira.

LANGABEZIA TASA


Langabezia tasa %9,2ra jaitsi zen

Langabezia tasa guztira




BJAk argitaratutako informazioaren arabera, langabezia tasa %9,2ra jaitsi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Beraz, lau hamarren jaitsi zen aurreko datuarekin alderatuta eta hiru hamarren 2018ko epe berarekin alderatuta. Gainera, 2010eko hirugarren hiruhilekotik zenbatetsitako tasarik txikiena da. Generoaren arabera bilakaera antzekoa da, eta bi kasuetan hobekuntza bat lortzen da aldagai horretan, bereziki emakumeen kasuan. Hain zuzen ere, emakumeen langabezia tasa %9,9koa izan zen, azken zortzi urteetako daturik onena baita; gizonen tasa, berriz, %8,6koa izan zen, aurrekoan baino hamarren bat txikiagoa bakarrik, baina hamar urtean izandako daturik apalena da. Langabezia tasaren jaitsiera enplegurik gabeko pertsonen kopuruak behera egin izanari esker lortu da; izan ere, 97.100 pertsona zeuden lanik gabe, nahiz eta biztanleria aktiboak nabarmen egin zuen gora (%1,1).


Langabezia tasa. Gizonak




Langabezia tasa. Emakumeak




Langabezia tasa. 25 urte beherakoak



Langabezia tasa. 45 urte gorakoak




Langabezia tasa. Lehen mailako ikasketak




Adin taldeen arabera, biztanleria gazteenaren langabezia tasa egonkortu dela hautematen da, oraindik ere %20 ingurukoa baita. Jaitsiera, berriz, batez ere adinekoen taldean gertatu da.

Egindako ikasketa maila aldagai garrantzitsua da langabezia ezaugarritzeko orduan, eta, beraz, prestakuntzak gora egin ahala, langabezia tasak behera egiten du. Izan ere, lehen mailako ikasketak soilik dituztenen langabezia tasa %14,0koa izan zen; bigarren mailako ikasketak egin zituztenena, berriz, %9,7koa, beheranzko profil argiarekin. Azkenik, goi mailako ikasketak dituzten pertsonen %6,0ko langabezia tasa izan zuten, enplegu osotik nahiko gertu.

Langabezia tasa. Bigarren mailako ikasketak



Langabezia tasa. Goi mailako ikasketak




INFLAZIOA

Prezioek moteltzeko joerari eutsi zioten irailean

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumo prezioek bere igoerak leuntzen jarraitu zuten, eta irailean minimoa markatu zuten 2018. urtearen hasieratik, urte arteko tasan %0,5ean kokatu baitzen. Hala, KPIak, argindarraren prezioetan izandako jaitsierari esker, joan den maiatzean hasi zuen beheranzko bideari eutsi zion. Joan den apirilaz geroztik, adierazle horrek puntu bat eta bi hamarren murriztu du bere tasa.


KPIaren banaketa

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko iraila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	0,5	0,5
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	1,2	1,0
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,7	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,4	0,1
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,8	0,8
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	-2,6	-0,5
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	1,1	0,1
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	-5,1	-0,6


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa Dolarrak



Aurreko hilabete bezala, inflazioaren beheranzko joera argindarraren prezioen merkatzeak eragin zuen. Izan ere, 2019ko baliorik txikienak izan zituzten, duela urtebete izandako igoera nabarmenen aldean. Horregatik guztiagatik, etxebizitza izan zen inflazioaren moderazioan eragin handiena izan zuen taldea, %4,9ko jaitsiera izan baitzuen, abuztuko datua baino puntu eta erdi beherago. Garraioaren prezioek ere lagundu zuten jaitsiera horretan, hamarren bat jaitsi baitziren aurreko hilabetearekin alderatuta (%1,6 aurreko %1,7aren ondoren), erregaien garestitze txikiagoaren ondorioz. Petrolioaren prezioa 60 dolarreraino jaitsi da, Saudi Arabian ekoizpena azkar suspertu delako bere findegien aurkako erasoaren ostean, eta Estatu Batuetan petrolio erreserben eskuragarritasun handia dagoelako. Era berean, elikagaiak hamarren batean erori ziren, %1,0an geratu arte, lekaleen, barazkien, ogiaren eta zerealen prezioetan izandako beherakadaren ondorioz.

KPIaren talde nagusiak Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko iraila


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,5	0,1	0,8
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,0	0,9	1,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	-0,3	0,,5	2,8
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,0	0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-4,9	-4,8	1,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,3	0,7	0,4
Osasuna	0,7	0,9	0,8
Garraioa	1,6	0,0	0,0
Komunikazioak	0,5	0,4	-1,8
Aisia eta kultura	0,9	0,1	-0,1
Hezkuntza	1,0	0,7	0,6
Jatetxeak eta hotelak	2,0	2,0	2,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,4	1,4	1,7

Iturria: INE eta Eurostat.


INGURUNeko HAZKUNDEA

Hazkunde desberdinak urteko hirugarren hiruhilekoan

Txinako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Esportazioen eta inportazioen bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Txinako Estadistika Erakundea eta Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

Txinako ekonomia %6,0 hazi zen urteko hirugarren hiruhilekoan, baliorik txarrenera 1992tik, alegia, datu horiek ofizialki erregistratzen hasi zirenetik, eta aurreikuspena (%6,1) baino hamarren bat gutxiago. Zenbakien arabera, Txinako erritmo bizian jarraitzen du hazten: industria ekoizpena %5,6 handitu zen, txikiak %8,2 eta higiezinaren sektoreko inbertsioa %10,5. Hala ere, AEBetako merkataritza gerraren ondorioetatik eta zorra murrizteko helburutik eratorritako barne eskaera txikiagoaren ondorioz, beharrezko prozesu batean murgilduta dago.


AEBetako taula makroekonomikoa

	2018	2018 III	2018IV	2019 I	2019 II	2019 III
BPG	2,5	3,1	2,5	2,7	2,3	2,0
Kontsumo pribatua	2,6	3,4	2,6	2,5	2,6	2,5
Inbertsio pribatu gordina	5,1	5,5	5,1	5,1	3,9	0,2
Kontsumo eta inbertsio publikoak	1,5	2,2	1,5	1,8	2,3	2,3
Esportazioak	0,4	2,4	0,4	1,2	-1,7	0,1
Inportazioak	3,2	5,7	3,2	2,6	2,6	0,8

Iturria: BEA.


Estatu Batuetan, kontsumo pribatua egonkor mantendu zen, eta inflazio neurritsuak babestu zuen (KPI% 1,7an kokatu zen hirugarren hiruhilekoan), bai eta lan merkatu osasungarriak ere, zeinak, funtsean, enplegu osoko egoeran jarraitzen baitu (langabezia tasa %3,6 izan zen). Inbertsioaren eta esportazioen ahuleziak, ordea, kontsumoaren tirabira indargabetu zuen. Horren guztiaren ondorioz, AEBetako ekonomiak bere hazkunde tasa %2,0raino arindu zuen.

Europar Batasuneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eurostat.


Euroguneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Eurostatek ere Europako Batasuneko eta euroguneko hazkundeak argitaratu ditu, urteko hirugarren hiruhilekorako. Lehen estimazio horretan oinarrituta, egonkortasuna kontinente zaharrean finkatu zen, aurrerapen erritmoa %1,4koa izan baitzen. Orain arte argitaratutako datuen arabera, hazkundea Espainiaren eta Frantziaren egonkortasunean (%2,0 eta %1,3 hazi ziren, hurrenez hurren) eta Italiaren susperraldi partzialean (%0,3 egin zuen gora, bederatzi hilabetez ia batere hazi gabe egon ondoren) oinarritu zen. Oraingoz, ez dira Alemaniari buruzko datuak ezagutzen, baina Bundesbankek ziurtzat jo zuen Euroguneko lehen ekonomia atzeraldian sartuko zela hirugarren hiruhilekoan. Euroaren eremuak, bestalde, antzeko bideari eutsi zion, baina beheranzko joera txikia izan zuen. Zehazki, bere BPGa %1,1ean kokatu zen, aurreko erregistroa baino hamarren bat beherago.

INEren arabera, Espainiako ekonomiak aurreko hiruhilekoko hazkunde erritmoari eutsi zion. Familien kontsumoa, inbertsioa eta administrazioen gastua indartsu agertu ziren. Halaber, esportazioek beren erregistroa hobetu zuten, ziurgabetasun globala izan arren. Dena den, inportazioak ere indartsu handitu ziren, eta, ondorioz, aurrerapauso horren zati bat konpentsatu zuten. Horren guztiaren ondorioz, jarduerak %2,0 egin zuen aurrera. Lan merkatuan, landunen kopurua %1,8 hazi zen, aurreko erregistroan baino zazpi hamarren gutxiago, eta urtebetean 332.000 lanpostu gehiago izatea ekarri zuen.

Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

ELGE-REN AURREIKUSPENAK

Munduko ekonomia apaltzen ari da

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



NDFk urriko txostenean argitaratu du munduko BPGaren bilakaerari buruzko aurreikuspenen azken eguneraketa. Era-kunde horren arabera, munduko ekonomi-aren hazkunde tasak %3,0 eta %3,4 izango dira 2019rako eta 2020rako, hurrenez hurren. Datu horiek beheranzko berrikuspe-na dakarte aurreko txostenarekin alderatu-ta, batez ere merkataritza oztopoengatik, nazioarteko merkataritzari buruzko ziurga-betasun handiagatik eta tentsio geopoliti-koengatik.

2020rako, hazkundera pixka bat bizkortzea aurreikusten da, baina prekarioa eta ez orokortua izatea aurreikusten da.


ELGEren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			2019ko uztaileko txostenarekiko aldeak	
	2018	2019	2020	2019	2020
Munduko ekonomia	3,6	3,0	3,4	-0,2	-0,1
Ekonomia aurreratuak	2,3	1,7	1,7	-0,2	0,0
AEB	2,9	2,4	2,1	-0,2	0,2
Eurogunea	1,9	1,2	1,4	-0,1	-0,2
Alemania	1,5	0,5	1,2	-0,2	-0,5
Frantzia	1,7	1,2	1,3	-0,1	-0,1
Italia	0,9	0,0	0,5	-0,1	-0,3
Espainia	2,6	2,2	1,8	-0,1	-0,1
Erresuma Batua	1,4	1,2	1,4	-0,1	0,0
Japonia	0,8	0,9	0,5	0,0	0,1
Garatzen ari diren herrialdeak	4,5	3,9	4,6	-0,2	-0,1
Txina	6,6	6,1	5,8	-0,1	-0,2
India	6,8	6,1	7,0	-0,9	-0,2
Errusia	2,3	1,1	1,9	-0,1	0,0
Brasil	1,1	0,9	2,0	0,1	-0,4

Iturria: ELGE.


Ekonomia aurreratuen BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Garatzen ari diren ekonomien BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Batez beste, ekonomia aurreratuek aurrerapen txikia izango dute, epe luzera duten potentzialera hurbilduz. AEBetan, nazioarteko merkataritzari lotutako ziurgabetasunak inbertsioa tratatuko du. Euroaren eremuan, aurreikuspenen zuzenketa esportazioen ahulezian eta Brexit-aren ebazpenari buruzko zalantzetan oinarritu da.

Azaleratzen eta garatzen ari diren ekonomia handi guztien hazkundea ere beherantz berrikusi da, merkataritza transakzioen ziurgabetasunaren eta barne politiken ondorioz. Hala, Txinan, muga zergez gain, barne eskariaren motelaldiak ere kezkatzen du, zorpetzea kontrolatzeko aplikatu diren neurrien ondoren. 2020rako, oro har, susperraldi moderatua aurreikusten da.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,8	3,0	3,0	2,6	2,2	2,2	2,0
Familien kontsumoa	3,1	2,7	2,6	2,5	2,2	1,9	—
Administrazioaren kontsumoa	2,1	1,6	1,7	1,3	2,0	2,0	—
Kapital eraketa gordina	3,1	4,7	4,8	4,6	4,0	2,5	—
Barne eskaria	2,9	3,0	3,0	2,8	2,6	2,0	—
Esportazioak	4,8	3,0	2,1	0,7	-1,4	2,8	—
Inportazioak	5,0	3,0	2,2	1,1	-0,8	2,6	—
Lehen arloa	10,1	7,9	4,8	15,9	4,6	-0,1	—
Industria	2,5	2,5	2,5	0,3	0,6	0,8	—
Eraikuntza	1,6	4,1	5,4	6,2	4,8	2,9	—
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,5	2,7	2,6	2,6	—
Balio erantsi gordina	2,8	2,8	2,7	2,4	2,2	2,2	—
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	4,9	5,1	3,8	2,2	1,9	—

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2019ko iraila

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019		2020				2019	2020
	III	IV	I	II	III	IV		
BPG	2,2	2,3	2,2	2,0	1,8	1,8	2,2	2,0
Barneko azken kontsumoa	1,9	2,0	1,9	1,9	1,8	1,7	2,0	1,8
Familien kontsumoa	1,9	2,0	2,0	1,9	1,9	1,8	2,0	1,9
Administrazioaren kontsumoa	2,0	2,1	1,9	1,8	1,7	1,7	2,0	1,8
Kapital eraketa gordina	2,7	3,0	2,9	2,7	2,7	2,8	3,0	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,2	2,4	2,3	2,1	2,0	2,1	2,3	2,2
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	-0,1	-0,1	-0,1	-0,2	-0,3	-0,1	-0,2
Lehen arloa	2,6	4,2	-0,3	-2,6	-7,5	-5,0	2,8	-3,9
Industria	1,2	1,3	1,1	1,3	1,5	1,5	1,0	1,4
Eraikuntza	3,0	3,0	2,8	2,6	2,4	2,4	3,4	2,6
Zerbitzuak	2,5	2,6	2,5	2,2	2,1	2,0	2,6	2,2
Balio erantsi gordina	2,2	2,3	2,2	2,0	1,8	1,8	2,2	2,0
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,1	1,7	1,8	1,8	1,6	2,0	1,7
Enplegua	1,4	1,4	1,3	1,2	1,1	1,1	1,6	1,2

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
Confebask	2,5	—	Funcas	2,2	—
Laboral Kutxa	2,2	2,1	CEPREDE	1,9	1,7
Hispalink (BEGaren aldakuntza)	2,2	2,0	BBVA	1,7	1,7

Iturria: CEPREDE (2019ko urria), BBVA (2019ko urria), Confebask (2018ko abendua), Laboral Kutxa (2019ko uztaila), Funcas (2019ko ekaina) eta Hispalink (2019ko uztaila).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,9	2,4	2,2	2,1	2,2	2,0	2,0
Kontsumo pribatua	3,0	1,8	1,6	1,2	1,1	0,6	1,5
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	1,9	2,2	2,2	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	5,3	5,3	3,5	4,8	1,0	2,0
- Aktibo finko materialak	7,0	6,2	6,3	4,0	5,8	1,0	2,0
- Eraikuntzan	5,9	6,6	6,1	5,7	4,2	2,9	-0,7
- Ekipamendu ondasunetan	8,5	5,7	6,8	1,4	8,0	-2,2	5,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,3	1,1	0,7	1,0	-0,1	1,1	2,2
Nazio eskaria (ekarpena)	3,0	2,6	2,5	2,0	1,9	1,0	1,8
Esportazioak	5,6	2,2	1,6	0,1	0,3	2,2	2,3
Inportazioak	6,6	3,3	2,5	-0,3	-0,4	-0,7	2,0

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
AFI	2,2	1,9	IEE	2,3	1,8
Axesor	2,4	2,0	Intermoney	2,1	1,8
BBVA	2,3	1,9	Repsol	2,1	1,7
Bankia	2,2	1,8	Santander	2,2	1,7
CaixaBank	2,2	1,7	Solchaga Recio & asociados	2,2	1,8
Espainiako Merkataritza Ganbera	2,2	1,9	Batez bestekoa	2,2	1,9
Cemex	2,2	1,8	Gobernua(2019-04)	2,2	1,9
CEEM-URJC	2,3	1,9	Espainiako Bankua (2019-09)	2,0	1,7
CEPREDE-UAM	2,3	2,1	Europako Batzordea (2019-07)	2,3	1,9
CEOE	2,1	1,8	NDF (2019-07)	2,3	1,9
FUNCAS	2,2	2,0	ELGE (2019-05)	2,2	1,9
ICAE-UCM	2,2	1,9	Consensus Forecast (2019-10)	2,2	1,8

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutense; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
AEB	2,4	2,9	3,1	2,5	2,7	2,3	2,0
Txina	6,9	6,6	6,5	6,4	6,4	6,2	6,0
Japonia	1,9	0,8	0,2	0,3	1,0	0,8	—
Kanada	3,0	1,9	2,0	1,6	1,4	1,6	—
Europar Batasuna	2,6	2,0	1,8	1,5	1,7	1,4	1,4
Eurogunea	2,5	1,9	1,6	1,2	1,3	1,2	1,1
Alemania	2,5	1,5	1,1	0,6	0,9	0,4	—
Frantzia	2,3	1,7	1,5	1,2	1,3	1,4	1,3
Erresuma Batua	1,9	1,4	1,6	1,5	2,1	1,3	—
Italia	1,7	0,8	0,4	0,0	0,0	0,1	0,3
Herbehereak	2,9	2,6	2,3	2,1	1,9	1,6	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2019ko urria

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AEB	2,3	1,8	1,8	2,1	3,7	3,7
Japonia	1,0	0,2	0,6	0,7	2,4	2,4
Kanada	1,5	1,6	2,0	1,9	5,7	5,8
Europar Batasuna	1,3	1,2	1,5	1,6	—	—
Eurogunea	1,1	0,9	1,2	1,2	7,6	7,5
Alemania	0,5	0,8	1,4	1,5	5,0	5,0
Frantzia	1,3	1,2	1,2	1,3	8,3	8,2
Erresuma Batua	1,2	1,0	1,9	2,1	3,9	4,1
Italia	0,1	0,4	0,7	1,0	10,1	10,1
Espainia	2,1	1,7	0,8	1,1	—	—
Herbehereak	1,6	1,4	2,6	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.